



'HITZA' ETA 'BERRIA' BABESTEKO UNEA IRITSI DA

Tolosako Trianguloa plazan proiektu berriari bultzada emateko argazkia aterako dugu 12:00etan; ager zaitez! 4-5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2010-10-30

VIII. URTEA 2.113. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

42. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketak atekak zabaldu ditu

TOLOSA Etzira bitarte 16 herrialdetatik etorritako 24 abesbatza igoko dira eszenatoki desberdinetara

GAUR Santa Klara elizan emanaldia 11:00etan hasiko da; Leidorren 16:00etan eta 20:00etan egongo dira saioak z



Anima Vocal Ensemble Ahots Talde errusiarrak zabaldu du Lehiaketa. I.TERRADILLOS



Balioanitzeko eraikina elizaren eta eskolaren arteko eremuan egingo da. I.G.

Balioanitzeko eraikinaren lanak abian jarri dituzte

IKAZTEGIETA Udaletxe berria lehen solairuan egongo da; lanek lau hilabete t'erdi iraungo dute z

GAUR
ORDU
ALDAKETA



943 67 16 27 • Igaralde 4, baxua
20400 Tolosa

DENAK
taberna
2x1 eskaintza

Astelehenetik ostegunera ogitaratekoetan
2 pertsonentzako 2x1eko eskaintza

- Eskaintzaz gozatu nahi duenak, aurretik tabernara deitu dezala joango dela esateko
- Kupoiaz gain, harpidedun txartela ere eraman beharko da
- Eskaintzaren iraungitze data, 2010eko abenduaren 31

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza

Izen - Abizenak:

Harpidedun kodea:

Erreserba eguna:



LORATEGIA ETA BARATZERAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

SANTU GUZTIEN EGUNERAKO
ZENTROAK ENKARGUZ
(Lanaberriak baino leu moztuak. Auzua zabala)

NEGU GARAIKO
LORAK SALGAU

Aitune poligonoa, 4-G. OLABERRIA 943 88 30 53

Eztarriak berotu eta hasi dira kantuan

42. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa»

24 abesbatza lehiatuko dira; bihar izango da bi abesbatza euskaldunen saioen txanda.

INIGO TERRADILLOS

42. Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketak ireki ditu ateak. Ezkira bitarte 16 herrialdeetatik etorritako 24 abesbatza igoko dira eszenatokietara, eta ikusle eta epaimahaiaren aurrean euren egitarauak eskainiko dituzte. Helburu berarekin ariko dira denak Sari Nagusia irabaztea, alegia. Txapela janzten duenak, gainera, datorren urtean Tolosan egingo duten Europako Sari Nagusirako txartela izango du. Sari horretaz gain, epaimahaiak sail guztietako sariak banatuko ditu, eta ikusleek ikusleen saria ematearen ardura izango dute.

Aurtengoan bi euskal abesbatza ariko direla nabarmendu daiteke: Gasteizko Crescendo Haur Abesbatza eta Tolosako Hodeiertz eta Ordiziako Oroitiek osaturiko Ahots Nahasien abesbatza. Bihar izango da euren txanda, Leidor aretoan: Gasteizko korua 11:00etako saioan ariko da, eta tolosarrak eta ordiziarrak, berriz, 16:00etan Polifonian ariko dira eta 19:00etan Folklorean.

Lehiaketako lehendabiziko

saioa izan zen atzokoa. Estatu Batuetako Salt Lake Vocal Artists eta University of Delaware Vocal Group, Filipinetako The Chamber Choir of Asia, Errusiako Anima Vocal Ensemble, Suitzako Callirhoe eta Ukrainako Vocal Group Dyvo aritu ziren Musika Profano sailean.

Gaurkoari dagokionez, hiru emanaldi izango dira ikusgai. Goizean, Santa Klara elizak hartuko ditu koruak, Musika Erlijiosoan izango dira. Arratsaldean izango dira beste bi saioak, Leidor aretoan. Bertan ariko diren abesbatzak Folklore eta Polifonia sailetan lehiatuko dira.

GAURKO EGITARAU

Musika Erlijiosoa

11:00 (Santa Klara eliza)

■ Salt Lake Vocal Artists (Estatu Batuak). Ahots Taldeak. 8 emakume eta 8 gizon. Zuzendaria: Brady Allred.

■ University of Delaware Vocal Group (Estatu Batuak). Ahots Taldeak. Paul D. Head da 8 emakumez eta 8 gizon osaturiko abesbatzaren zuzendaria.



Ameriketako Estatu Batuetako Salt Lake Vocal Artist abesbatza. I.T.

■ The Chamber Choir of Asia (Filipinak). Ahots Taldeak. 8 emakume eta 8 gizon. Zuzendaria: Jonathan Velasco.

■ Anima Vocal Ensemble (Errusia). Ahots Taldeak. 6 gizon. Zuzendaria: Victor Smirnov.

■ Callirhoe (Suitza). Ahots Taldeak. 18 emakume. Zuzendaria: Dominique Tille.

■ Vocal Group Dyvo (Ukraina). Ahots Taldeak. Emakume 1 eta 4 gizon. Zuzendaria: Nadiya Kupchynska.

Folklore eta Polifonia 16:00 - 20:00 (Leidor aretoa)

■ Extrachord (Alemania). Ahots Nahasiak. Martin Ramroth da 14 emakumez eta 13 gizon osaturiko koruaren zuzendaria.

■ Rodina (Bulgaria). Ahots Nahasiak. Maya Vasileva da 18 emakumez eta 18 gizon osaturiko koruaren zuzendaria.

■ Komorni Zbor Orfej (Eslovenia). Ahots Nahasiak. 17 emakumez eta 15 gizon osatua. Zuzendaria: Romana Rek.

■ University of Delaware Chorale (Estatu Batuak). Ahots Nahasiak. Paul D. Head da 20 emakumez eta 20 gizon osaturiko abesbatzaren zuzendaria.

■ Coro de Camara Mikrokosmos (Frantzia). Ahots Nahasiak. 14 emakume eta 13 gizon. Zuzendaria: Loic Pierre.

■ Coro Renaissance (Ukraina). Ahots Nahasiak. Nadiya Kupchynska da 20 emakumez eta 15 gizon osaturiko abesbatzaren zuzendaria.

Poltsa berrerabilgarriak sustatzea helburu

I. TERRADILLOS

Tolosaldeko Mankomunitateak Zurekin edonora lelopean poltsa berrerabilgarriak erabiltzea xede izango duen prebentzio kanpainari ekingo dio azaroaren 2an. 28 herrietako herritarren artean 26.000 poltsa banatuko dituzte, eta horiek

erabiltzea sustatzeko sariak ere izango dira.

Ekimenarekin bat egin duten 300 saltoki baino gehiagok lagunduko dute zeregin horretan. Izan ere, eskualdeko jatetxe batean baina lagunentzako bi afari zozketatuko dituzte, eta parte hartzeko,

saltokietan egongo diren kupoiak bete beharko dira. Dendariak eguneroko erosketak egitera horrelako poltsa batekin nahiz bestelako poltsa berrerabilgarri batekin agertzen den pertsona orori eman godo diote parte hartzeko kupoiak.

Mankomunitateetik diotenez, «oso errota dugu auzoko nahiz herriko dendetan erosketak egitean plastikozko zorro bat eskatzea, edotasaltzaileak erositakoa biltzea eta poltsa baten barruan ematea. Hori da, hain zuzen ere, kanpaina honekin ekidin nahi duguna, baina horretarako, saltokien inplikazioa ezinbestekoa izan da, eta hori eskertu nahi dugu».

Plastikozko poltsak ekidin

Hiru dira ekimenari jarri dizkioten helburu nagusiak: Eguneroko erosten ditugun gauzen bilgarrien eta plastikozko zorroen kontsumoa murriztea; hondakinen sorrera prebenitzen lagunduko duten ohiturak hartzen laguntzea; eta kanpainaren leialtze-maila ebaluatzea, hura abian den bitartean poltsen erabilerari erreparatuta.

Helburu horietara ailegatzeko, hainbat elementuz lagundu dute kanpaina. Esaterako, Tolosaldeko



Gemma Ezeiza eta Olatz Peon Tolosaldeko Mankomunitateko teknikaria eta lehendakaria, atzo eginiko kanpainaren aurkezpenarekin. HITZA

saltokietako arduradunentzat 800 informazio-gutun banatu dituzte. Halaber, ekimenaren kartelak eta afarien zozketarako kutxak eta parte-hartze kupoiak ere eman dizkiete.

Esan bezala, 26.000 oihalezko poltsa berrerabilgarri banatuko dituzte. Herritarbatzuek dagoeneko jaso dute, Andoianen, Ibarran, Tolosan eta Villabonan postaz banatu baitute. Gainerako herrietan Udala arduratuko da banatzeaz. Pol-

tsekin batera, kanpainari buruzko informazioa duen diptikoa ere banatuko dute.

Bi hilabete iraungo du kanpainak, baina bukatu aurretik, lehen hilabetea igarotzean, lehen balorazioa egingo dute, izandako parte-hartzea eta saltokietako arduradunen iritzia oinarri hartuta. Bestalde, dendariak 943 67 02 49 telefono zenbakira deitu ahaliko dute kanpainarekin bat egiteko edota zalantzak argitzeko.



E Elkarrizketa

LEIRE OLABERRIA > Txirrindularia

Ikaztegieta » Dominak pilatu eta pilatu jarraitzen du, helburua Londresko Olinpiar Jokoetan dagoela ahaztu gabe. Sakrifizioari etekina ateratzen ikasi du.

UNAI ZUBELDIA (BERRIA)

Egurtean dabil Leire Olaberria (Ikaztegieta, 1977), oso gaztetxoa zeneko pisu berberarekin. «61-62 kilotan nabil». Pistako Espainiako Txapelketan urrezko bost domina eta zilarrezko bi eskuratu zituen orain bi aste, Mallorcan (Herrialde Katalanak). Baina ospatzeko denborarik gabe, datorren astean Pruszkow herrian (Polonia) jokatuko den Europako Txapelketa prestatzen ari da orain Mallorcan bertan. 2012ko Olinpiar Jokoetan aritzeko puntuak pilatzen hasi beharra dauka jada. Entrenamendu eta bilera artean lanpetuta, goizean goiz hitz egin du Olaberriak BERRIAREKIN.

Mallorcan arrakasta lortuta, Mallorcan bertan jarraitzen duzu lanean. Ez dago atsedenerako tarterik, ezta?

Ez, ez. Azaroaren 5etik 7ra Europako Txapelketan lehiatuko gara, eta hor hasiko da Olinpiar Jokotarako ibilbidea. Lehen urtebetekoa zen sailkatzeko epea, baina orain bi urtera luzatu dute. Txapelketa hori izango da denboraldiko lehen proba garrantzitsua. Martxo amaieran amaituko da denboraldia, Munduko Txapelketarekin, eta luze egingo zaigu. Puntuak pilatu behar horrek, gainera, Munduko Kopa guztia lehiatzera behartuko gaitu. Neketsua izango da, baina ondo gaude.

Halakoetan lan fisikoa egitea izango da errazena, jada badakizuelako nola jarri behar duzun gorputza puntuan. Baina nola lan-tzen da burua?

Nik beti esaten dut oso gustura egiten dudala lan fisikoa. Omnium proban buruak eragin handia dauka—sei proba ditu—, baina profesionalen askotan gertatzen da fisikoki ondo egotea baina ondoren emaitzarik ez lortzea, buruak huts egin duelako. Buruari ere errendimendua atera behar zaio, eta urtearen poderioz ikasten da hori ondo nola egin; zailtasunak erronka gisa hartzen ikasi dit. Sufrimenduarekin gozatu egiten dut.

Esan duzu Olinpiar Jokotarako sailkatze sistema urtebetetik bi urtera pasatu dutela. Horrek mesede egingo dizue edo presioa areagotuko du?

Gogorra da sistema, baina, nire ustez, ona. Norberaren lana ondo egitea behartzen du horrek, baina ingurukoena kontrolpean izatera ere bai. Gutxi gorabehera beharrezkoak diren puntuak eskura-



NEREA URBIZU

«Londresen Pekingo emaitza berdintzeko edo hobetzeko ari naiz lanean»

tzen ditugunean, gainera, gauzak lasaiago egiteko aukera izango dugu. Erorketaren bateko lesioaren bat izanez gero, denbora berreskuratzeko aukera handiagoa ematen du sistema honek. Baina, noski, psikologikoki ere neke handiagoa pilatuko dugu.

Lehen hemezortzi txirrindulariak sailkatuko dira Londreserako, baina Europako bederatzik soilik. Bederatzi horien artean sartu behar, beraz...

Hala da. Munduko hemezortzi txirrindulari onenen artean egon arren, Europako bederatzik onenen artean sartu beharra dago. Horregatik da hain garrantzitsua Europako Txapelketa, arerio zuzenak bertan izango direlako. Horrelako txapelketetan dominak lortzeko borrokan murgiltzen gara, baina badaukagu beste borroka bat ere: aurkari zuzenei ahalik eta puntu gehien ateratzea.

Pistako Espainiako Txapelketan urrezko bost domina eta zilarrezko bi lortuta ere, haserre geratu zinen, zortzigarrena eskura zenukalako.

Domina kentzeko modua izan zen garrantza. Normalean ez dut egiten proba hori, baina Tania Calvo gastreiztarra indartsu dator, eta elkarrekin aritu ginen. Espainiako marka ondu genuen, bigarrenari

alde handia aterata. Baina helegite baten eraginez kanporatu egin gintuzten, bizikleta ez zelako arauzkoa. Arauak ezagutu behar nituen; ados nago horretan. Baina pista irten nintzenean epaileak ez zidan ezer esan. Hala ere, sentsazioak onak izan ziren, eta elkartuko gara berriz ere.

Urrutira begira jarrita, Londres ageri da zure begiradan. Zer ikusten da Olinpiar Joko horietan?

Londres ametsa da berriz ere. Pekinen oso momentu politikak igarotzen nituen, eta momentu horiek errepikatzea da helburua. Oso zaila izango da, baina Londresen Pekingo emaitza berdintzeko edo hobetzeko ari naiz lanean.

Aurretik Munduko Kopako probak izango dituzu Melbourne eta Calin, eta martxoan Munduko Txapelketa ere bai. Horiek ere begiz jota edukiko dituzu, noski.

Bai. Abenduan sasoi puntu onean egoteko eskatu dit Espainiako hautatzaileak, gero martxora arte mantentzeko. Melbournera (Australia) joango gara abenduan, eta hamabost egunen buruan Kolonbiara joango gara, Calira. Bidaia gogorak dira, baina sasoiaren egoenez gero, puntu asko eskuratzeko aukera dago.

Aurten Emakumeen Biran parte hartu duzu, eta Italiako Giroan ere bai, nahiz eta erori eta etxera itzuli behar izan zenuen.

Lan moduan eta omnium probari begira, komeni zitzaidan erresistentzia lantzea. Asko gustatu zait errepedean aritzea, eta, batez ere, Giroan parte hartzea; egutegian dagoen probarik garrantzitsuen da. Errepideko Munduko Txapelketan ezin izan dut parte hartu, irailen ondo egonez gero, denboraldia oso luzea izango zelako. Asko kosta zitzaidan erabakia hartzea, baina argi daukat lehentasunak, eta negu honetan Olinpiar Jokotarako sailkapena ondo bideratzen badut, datorren denboraldian, agian, errepedean gehixeago aritzeko aukera izango dut.

Espainiako Txapelketan urrezko bi domina lortu zenituen. Zure mailaren isla da hori, baina emakumezkoen txirrindularitzarentzat larrizko albiste ere izan daiteke, ezta?

Neurri batean, bai. Erlojupekoak oso egokiak dira pista aritzen garen txirrindulariontzat, baina errepedeokoa egia da berez beste ezaugarri batzuk behar direla. Bai errepedean eta bai pista, igo egin behar dugu emakumezkoen txirrindularitzaren maila. Gazteak badatoz, eta garrantzitsua da horiek gertutik ikustea lan eginez gero emaitzak lor daitezkeela.

Erabaki garrantzitsu bat ere hartu duzu aurten, Cespa-Euskadiren bidea ixtea erabaki duzula. Zeren ondorio da erabaki hori?

Asko zor diot Cespa-Euskadi taldeari, Espainiako selekzioarekin batera eurek eman didatelako aukera nazioartean lehiatzeko. Eurenkin hazi naiz txirrindulari gisa, baina ikusipuntu desberdina geneukan, eta bi urteko sailkapena gogorra izango zela ikusita, ahalik eta lasaien egotea erabaki dut. Oinarrria Gipuzkoan izango duen talde batean nago, eta babesle bila gabilta orain.

Noiz arteko gasolina dauka Leire Olaberriak? Bizitzaren beste alorre begira jarri al zara?

Londres da helburua. Sasoirik onenean iritsi nahi dut bertara, eta gero lehiaketak jarriko nau merezi dudana lekuan. Ondoren hitz egingo dut neure buruarekin, amatasunaren gaia ere bueltaka dabilkidalako beti. Baina, oraingoz, sakrifizioak egiten jarraitzeko gogoia daukat.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak... garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen) telefonora.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko, emakumea behar da. Interesatuek deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

HITZA eta BERRIA elkarlanean

Hedabideak » Azaroaren Setik aurrera, eskaintza berriua eta osatua eskainiko dugu sarean eta paperean.

EREDAKIZIOA

Pasa den astelehen TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-n aurreratu genizuen bezala, eraberritua etorriko zaigu datorren astelehen aurrerako egunetan. Berritua etorriko da osatua eskainiko dute azaroaren Setik aurrera. Komunikabideen arteko elkarlanean, irakurleok informazio osatua jasoko dugu; egungo produktua bera, BERRIA-rekin osatuta. Papereko eskaintza indartzea gaiti, gure eta jende gehiagorengana iristea helburu izanik, bestelako euskarrietara ahalik eta gehien zabaltzeko apustua ere egingo dugu. Horretarako, Interneten zein paperean urrats berriak emango ditugu.



Irudian, herrialdeetako hitzen azalak. BERRIA TALDEA

rikioa, Urola Kostakoa, Oarso-Bidasoa eta Irutxuloak) Hitzekin eta BERRIA egunkariarekin batera GERTUZZOAKO HITZA banatuko du ostiralean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-k. Gurea ez da herrialdeko HITZA bakarrik izango; guztira bost herrialdeko HITZA agitaratuko dira, guztiak ostraleantze: Arabakoa, Bizkaitakoa, Gipuzkoakoa, Ipar Euskal Herrikoa eta Nafarroakoa.

Horrenbester, eskualdeko informazioekin batera, herrialdeko informazioa jasoko dugu azaroaren Setik aurrera TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-ko harpidetuekin. Eskualdeko HITZA-rekin batera 16 orrialdeko herrialdeko aste-aria jasoko dugu ostraleantze; egunero komiki irakurle ez duten erreportaje, elkarrizketa eta ginerakoak landuko ditugu, zabal. Egunero zurrubiakiko thes egin eta kazetaritza posuatuago egiteko akera emango du, aldi-zarrien erudira hurbildu.

Era berean, ostraleantze argitaratzearekin, aseberruko gehigarri erreferentziala biltzatzea da helburua. Horretarako, agenda zabala, kultur agenda, eta herrikoitako ekitaldien gainera informazioa, erreportajeak eta elkarrizketak landuko ditugu.

Jende gehiagorengana iritsi
Euskaraz zaila da produktu bakoitzaren jende askorengana iristea. Dibertsifikazioaren bidez jende gehiagorengana iristeko apustua egin, eta herrialde mailako aste-ariak argitaratzea erabaki dugu. Herrialde bakoitzeko euskarriak euskaraz irakurtzea bultzatzeko dituen produktuentzako eta informazio nazionalaren eta lokalaren arteko hutsunea bete; eskari horien gain hartuena bilatu nahi dugu, tokiko informazioak daukan garrantzian eta arazoaren lekuko izan gurelako.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza

Eskualdeko bitartekari bakoitza informazioa euskaraz emateko helburuarekin jaino zen TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA 2005an. Oñduki urrats garrantziosak eman ditugu proiektuak; orain urrats berri bat ematera dugu: Gipuzkoako gainontzeko eskualdeetako (Goi-

Azaroaren 5ean, BERRIA eta HITZA egunkariak, proiektu berria abiaraziko dute, sarean eta paperean. Bizi dugun egoera zailari, elkarlanaren bidez erantzun dugua eta aurrerantzean informazio osatuagoa emango dugu.

Proiektu berria aurkezteko egingo den ekitaldira gonbidatu nahi zaizugu, Bertan aurkeztuko ditugu sareko proiektu berria eta Gipuzkoako HITZA asteakaria.

Azaroak 4, osteguna
19:30ean
Martin Ugalde Kultur Parkea - ANDOAIN

berrian, zurea da hitza

euskarazko komunikabideak, elkarlanean, bertutia mugimenduan

berria hitza

Interneten ere urrats berriak

Hedabideak » 'Berrietan.info' komunitate irekia sortu dugu; webgune propioa izango dute hainbat herrik.

EREDAKIZIOA

Guztia jakina da Internetek eta teknologiek herriko hitza aldatuak ekarri dituzela komunikabideen kontsumoan. Agerikoa da hedabideen kontsumorako ohiturak aldatzen ari direla eta prentsa, irratia edo telebista bidez jaso izan dena gaur egun Internet bidez jasotzeko joera ari dela zaharitzen. Horrek behartu gaiti Interneten proiektu berriak garatzera, eta kontestu horretan kokatu behar dugu BERRIA Taldeko komunikabideek martxan jarritako duten berrietan.info sare soziala.

Informazioan inarritutako sare soziala

Berrietan.info komunitate irekia da, informazioan inarritutako sare soziala. Komunitate horretan parte hartuko dute BERRIA-ko eta HITZETAKO kazetariak, baina horrez gain euskarazko gainontzeko kazetariak eta edozein erabazkileri irakurle egongo da. Helburua euskarazko informazioaren topagune eta eztabaida gune izatea.

Nahi duenak, bere profila Twitter eta Facebook-eko profileen automatikoki kezkako aurrerakiko dugu, eta Berria.info-n eta Hitzetako.info-n berriak bidaltzeko aukera izango dugu azaroaren 4an martxan jarritako dugun komunitate berrian.

ter eta Facebook-eko profileen automatikoki kezkako aurrerakiko dugu, eta Berria.info-n eta Hitzetako.info-n berriak bidaltzeko aukera izango dugu azaroaren 4an martxan jarritako dugun komunitate berrian.

Hainbat herrik webgune propioa izango dute

Berrietan.info ez da datorren astelehen aurrerako egunetan berrietan bakarrik. Pasa den astelehen TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-n aurreratu genizuen bezala, sarean zein paperean, herri-erengandik are hurbilago dagoen informazioa eskainiko dugu. Hala, herri bakoitzak webgune propioa bidaltzeko aukera izango du. Tokian tokiko HITZA horietan argazki galeriak, bideoak, audioak, pdf-ak, iragunak izango dira.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-ko sareko irakurleek, beste hainbat hobekuntza ere izango dituzte; elkarlanaren ondorioz, webgunearen edizio jarraituan urrats berriak emango ditugu, webgunean den bera errealizatzeko aukera izango dugu, Twitterrekin loturak egingo ditugu. Eskaintza zabaldu eta osatuta.



Hitzen webgune berri irudi orokorra. BERRIA TALDEA



Berrietan.info webgunearen irudira. BERRIA TALDEA

BERRIA Taldeak ostegunean aurkeztuko du Gipuzkoako proiektua

Hedabideak » Tolosan, HITZA babesteko argazki erraldoia aterako dugu gaur 12:00etan, Trianguluan.

EREDAKIZIOA

BERRIA Taldeak martxan jarriko dituen ekimenak aurkezteko, herrialdeko aurkezpen ekitaldiak egingo ditu datorren astean. Gure herrialdeari dagokionez datorren ostegunean egingo dugu aurkezpena, azaroaren 4an, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean, 19:30ean.

Eskualdeko Hitza babesteko

Bestalde, eskualdean, gure proiektuak eta sareko gizaratzeak oinarria izan daitezen, gure herri bakoitzeko zure laguntza eskatzen dizugu. Azaroaren 5ean izango dira proiektu berriak kalean eta horren aurrerak gure eskualdean argazki jendetsua aterako dugu. Euskarazko prentsiari babes emateaz gain, herri bakoitzeko egiteko deia egitea izango da argazkarien helburua. Honako da gure eskualdeko deialdia: gaur izango da, 12:00etan Tolosako Trianguluan plazan. Denak gonbidatuta zaudete.

Saridunak

1 SASKIBALOIA
Urriaren 31an - 18:00etan - Ibilburuen Lagun Aro GIC - Blancos de Poada Valladolid
Zigor Leunda Eizmendi (Villabona)
Saridunek sarerak hitzartzen bertan izango dituzte.

2 DISKOAK
Urko Menaren 'Ametsak eta Oñdukiak' diskoaren abisua
Bitor Leizaralde Ureta (Tolosa)
Miguel Agote Garmendia (Tolosa)
Miguel Mari Munduate Artola (Tolosa)
Diska jasotzeko, HITZAREN Tolosako egoitzatik pasatu.

3 TRIKITIXA JAIALDIA
Azaroaren San - 20:30ean - Leidorren
Jose Manuel Jauregi Larrarte (Añoeta)
Miguel Jesus Tolosa Esteban (Tolosa)
Saridunek sarerak hitzartzen bertan izango dituzte.

4 ANTZERKIA
Roberto Maitza antzezlanak
Azaroaren 5ean - 19:00etan - Topik-en
Miguel Mari Aukia Aiestaran (Elduza)
Asier Telleria Bereziartua (Albiztur)
Saridunek sarerak hitzartzen bertan izango dituzte.

Laser Promozioak
Azaroaren Setik 15era
Aurkeztu eta aurkeztu 5 euroz
1.250€
Batasun osoan 5 euroz
195€

SHYANA
BETETZAK: Etxeparearen
Luzapen 11A - T. 945 075 465
KIDUEK 17A
Aurkeztu 1. T. 945 071 466

Hasi da udaletxea hartuko duen balioanitzeko eraikinaren obra

Ikaztegieta » Eraikina egurrezkoa izango da eta geotermia bidez berotuko da; lanek lau hilabete eta erdi iraungo dute eta aurrekontua guztira 962.000 eurokoa da.

IMANOL GARCIA

Ikaztegietak balioanitzeko eraikina izango du laster. Hiru solairu izango ditu eta lehenengoan udaletxea kokatuko da. Eraikina elizaren eta eskolaren artean egongo da. Aste honetan hasi dituzte lanak eta lau hilabete eta erdi iraungo dute.

Eneritz Maiz alkateak azaltzen duenez, «urteak dira Ikaztegieta udaletxe berri baten beharra ikusten zena». Eraikina egiteko lur eremua aurreko arauetan dagoeneko horretarako bideratuta zegoen. «Beti leku falta izan da herrian. Oraingo udaletxea, txikia izateaz gain, oinarritzko irisgarritasun arauak ez ditu betetzen», gaineratzen du Maizek.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landagipuzkoa 32 egitasmoa abian jarri zenean ikusi zuen Ikaztegieta Udalak proiektuari heltzeko aukera. «Aurreproiektua eskatu genuen lehenbailehen Landagipuzkoa 32 egitasmoa aurkeztu ahal izateko», dio alkateak. «Proiektua onartu ziguten eta 500.000 euroko diru laguntza emango zigutela esan. Eraikinaren kostua ikusita, ez da gehiegi, baina ezin genion diru laguntza horri uko egin. Proiektu guztia ordaintzeko mailegua eskatu behar izan dugu Kutxan».



Elizaren eta eskolaren arteko lursailean ari dira eraikitzen balioanitzeko eraikina. I. GARCIA



Eraikinaren aurrealdeko fatxadak izango duen itxura. HITZA

Balioanitzeko eraikinaren aurrekontua 962.000 eurokoa da. Foru Aldunditik, Landagipuzkoa 32 egitasmoaren bitartez, 500.000 euro jaso ditu Udalak, 100.000 euro araztegi obretatik kobratuak eta maileguan 362.000 euro inguru eskatu behar izan ditu.

Egurrezko egitura

Udalan eraikinaren proiektua gauzatzen hasi zirenean, Landagipuzkoa 32 egitasmoa kudeatzen duen Etorlur enpresak, eraikinaren egitura egurrezkoa egiteko proposatu zien. Udaleko Hirigintza Batzordeko kideek zalantzak izan zituzten. Hori argitzeko, udal ordezkariak bisita egin zuten horrelako eraikinak egiten dituen enpresa batera eta dagoeneko bukatuta zeuden zenbait eraikin ikusi ahal izan zituzten. Maizek azaldu duenez, «egurrezkoa izanik eraikitze lanetan denbora aurreztu egiten zen eta prezioaren aldetik ez zegoen alde handirik».

Egurrezkoa izateak ere beste abantaila bat badu, alkateak dioenez: «Tenperatura hobeto mantentzen da, bai hotza bai beroa dagoenean, eta gerora begira errentagarriagoa da». Kanpotik ez da nabariturako eraikina egurrezkoa dela, eta kolorez zuria izango da.

Energia berriztagarriak bultzatze aldera, geotermia erabiliko dute eraikina berotzeko. Sistema hori ezartzeko Eusko Jaurlaritzatik 5.000 euro inguruko diru laguntza jasoko du Udalak.

Hiru solairu

Eraikinak hiru solairu izango ditu. Behe solairuan 82 m²ko erabilera anitzeko gela egongo da, bere aldagela eta guzti. Lehen solairuan kokatuko da udaletxe berria. Osoko bilkurak egiteko gelaz gain, hainbat bulego izango dira bertan: alkatezarena, idazkaritzarena, administrazioarena eta bulego teknikoa.

Bigarren solairuan, liburutegiak eta KZguneak hartuko du leku gehien. Solairu horretan egongo da ere gizarte laguntzailearen bulegoa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

**HILBETAREN
BALIOA**
Esma Inperala

FUNERARIA VASCONGADA
902 402 900

Laburrak

Kanposantura igotzeko autobus zerbitzua

TOLOSA » Gaur eta bihar kanposantura igotzeko hiribus zerbitzua egongo da. Musika eskolatik 09:00etan, 09:45ean, 10:30etan, 12:00etan, 12:45ean, 15:00etan, 15:45ean, 16:30ean, 17:15ean eta 18:00etan aterako da autobusa, ibilbide hau eginaz: San Frantzisko eliza, Geltokia, Berazubi, Iurrea-mendiko biribilgunea, Kiroldegia, Amarotz, Kanposantua, Iparragire, Bizkaia kalea, JA Irazusta eta Trinketea. Itzulerako autobusa 09:30etan, 10:15ean, 11:00etan, 12:30etan, 13:15ean, 15:30etan, 16:15ean, 17:00etan, 17:45ean eta 18:30etan aterako da.

Sarrerak salgai, 'Oinazez' en aurkezpenarako

IBARRA » Alurr dantza taldeak bere lan berria estreinatuko du Tolosako Leidor antzokian, abenduaren 10ean. 22:00etan izango da emanaldia eta Oinazez du izena. Orain artekoarekin hautsiz, ikuskizun berriazalea eta desberdina prestatu dute. Sarrerak jada salgai daude 10 eurotan, 943 00 12 00 telefonora deituta edo www.kutxa.net helbide elektronikoen. Tradizioaren eta berrikuntzaren arteko elkarlan bat izango da Oinazez, hainbat dantza eta koreografiaren oinarrituta. Koreografia gehienak Aiert Beobidek sortu ditu. Musikak, berriz, besteak beste, Jagoba Astiazarnek.

Inauterietako irudiekin erakusketa osatzen

Tolosa » Udalak herritarrek ateratako argazkiekin bilduma bat osatu nahi du, gero ikusgai jartzeko hiriko gune ezberdinetan.

ERREDAKZIOA

Udala Inauterietako buruzko erakusketa bat prestatzen ari da datorren urteko urtarrilerako. Gune nagusia Aranburu Jauregiko erakusketa aretoan egongo da kokatua, baina honekin batera, beste hainbat jarduera ere burutuko dituzte.

Egitasmoaren koordinatzailea eta irudien hautaketaren eta tratamenduen arduraduna Nestor Ardanaz argazkilaria izango da. Honenbestez, bilduma horretan, norberak bere argazkiak erakuste-

ko aukera izango da. Parte hartzeko, interesatuek Kultur Etxera eraman behar dituzte irudiak, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Argazkiak edozein eratakoak izan daitezke, zaharrak nahiz berriak, zuri beltzean nahiz koloretan, erretratuak nahiz paisaiak... Baldintza bakarra da, Tolosako Inauterietako izatea. Bakoiatzak gehienez bost argazki eraman ahal izango ditu.

Argazkiak utzitakoan fitxa modukoak egingo dituzte, eta astebe-tean digitalizatu egingo dituzte. Epe hau igarota, materiala berriro jaso ahal izango da. Bestalde, bilduma Udal Artxiboan gordeta geratuko da. 2011eko urtarrilaren 14tik martxoaren 12ra bitartean eramango dute aurrera ekimena.

Babarrun jaterako txartelak salgai

Ibarra » Hauspoak antolatuta babarrunaren bueltan ekitaldi ezberdinak egingo dituzte azaroaren 7an, tartean bazkaria.

ERREDAKZIOA

Hauspoa elkarrekin Babarrun jatea antolatu du azaroaren 7rako. Horregatik, salgai daude bazkarirako txartelak Zubiaurre, Sendi-Ekintza, Atari, Txumitza eta Arkaitz-azpi tabernetan. 16 urte azpikoak hiru euro ordaindu beharko dituzte, eta helduek hamabost.

Bestetik, egun berean, Babarrunaren Lehendabiziko Lehiaketa

Ibarrarajokatuko da. Hemen parte hartzeko izen-ematea ere oraindik zabalik dago. Honetarako epea azaroaren 3an amaituko da. Interesatuek, Zubiaurre eta Atari tabernetara edo Kultur Etxera jo dezakete horretarako. Lehiakideei, ura, gatza eta babarrunak emango dizkiete, eta hauek prestatzea izango da beraien lana. Gainera, antolatzaleek jakitera eman dutenez, hemen, lehiakideen artean banatuko diren babarrunak Ibarrran bertan ere indakoak izango dira. Irabazleek, sari gisa, txapela eta Eluska jatetxean bi laguntzeko otordua eramango dute. Bestalde, parte-hartzaile guztiak doan izango dute egun horretako bazkaria.

Adinekoen zaintza hobetzeko ikastaroak



Hamasei lagun ari dira parte hartzen saioetan. HITZA

Bidegoian » Saiaz Mankomunitateak antolatuta bi ikastaro ari dira burutzen egun hauetan, hainbat lagun.

kazioa adineko pertsonekin du, izenburu. Bost saio osatzen dute eta Izarne Lizaso psikologoa, EHUko doktorea da irakaslea. Euskara eta gaztelera tartekatzen dute saioetan.

ERREDAKZIOA

Saiaz Mankomunitatearen eskutik, adineko pertsonekin lotutako bi ikastaro ari dira gauzatzen Bidegoian. Hauek Saiaz Gizarte Zerbitzu mankomunitatea osatzen duten Albiztur, Bidegoian, Beizama eta Errezilgo herritarrei zuzenduta daude. Denera, 16 lagun ari dira parte hartzen bertan. Ikasleen artean daude zainzaileak, familiakoak nahiz eguneko zentroetan aritzen diren langileak.

Urriaren 20an hasi zen ikastarok Giza trebetasunak eta komuni-

Bigarren ikastaroa, ostegunetik aurrera

Lehendabizikoa amaitu eta hurrengo egunean ekingo diote bigarren ikastaroari. Hau, lehendabizikoa bezala, doakoa izango da eta saioak Bidegoiango zentro balioan izango dira.

Azaroaren 4tik aurrera, Mobilizazioak eta laguntza teknikoak izango dira hizpide. Orotara bost saio izango dira, aipatutako, azaroaren 10koa, 11koa, 17koa eta 18koa. Pakea Galdos erizainak emango ditu azalpenak 15:00etatik 18:00etara artean.

BERRIA egunkariarekin DOAN

Azaroak 5, ostirala,
karpeta eta lehenengo fitxak zure kioskoan
EGUNERO FITXA BAT; 20 ENTREGA.

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

Gazte Asanbladaren eskutik, argazki lehiaketa herrikoa jokoan

Ibarra » Gaia askea da, eta edonork har dezake parte; Gaztetxean utzi behar dira irudiak, azaroaren 2rako.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Gazte Asanbladak «udazkenak izan ditzakeen kolore guztiak jaso nahian» argazki lehiaketa herrikoa antolatu du. Duela egun batzuetatik dago martxan. Hala, parte hartu nahi dutenek hiru argazki aurkeztu beharko dituzte datorren astearte, azaroaren 2a baino lehen. Hauek gutunazal batean sartu eta Gaztetxean utzi beharko dituzte.

Egun horretan bertan, hau da, asteartean, argazki guztiak bildu eta ikusgai jarriko dituzte azaroaren 7ra arte Gaztetxean. Lehiaketari festa giroan emango diote amaiera. Izan ere, igande horretan, talo-jan batekin jakinaraziko da zein izan den irabazlea. Irabazlea nor den, bozketatik bidez erabakiko dute eta hau modu anonimoan egingo dute. Garailearentzat saria ere izango dute.

Antolatzaileek inguruko gazte nahiz heldu guztiak gonbidatzen dituzte bertan parte hartzera.



2011 agenda

Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherriko plaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** Tolosa Goxua azoka, Trianguloan goiz osoan zehar.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Guraso Eskola 16 urte arteko seme-alaben gurasoentzat, ostegunero Errotan 15:15etik 16:45era, azarotik otsailera. Izen-ematea, Gizarte Zerbitzuetan edo 943 69 74 60 zenbakira deituta.

Jarduerak

■ **Tolosa.** Tolosa Kantari saioa Tonto kaletik 12:00etan abiatu eta Alde Zaharreko kaleetan zehar. Euskaraz kantatu nahi duten guztiak irakia.

■ **Tolosa.** Kontalaria autobusa Trianguloan. Eusko Jaurilaritzak ahozkotasuna bultzatzeko bultzaturiko egitasmoa Trianguloan izango da, 16:00etatik 20:00etara. Nahi duen herritar orok parte hartu ahal du.

Kultur Asteak

■ **Oresa.** Kultur Hamabostaldia: 16:00etan eskalada saioa eta puzgarriak haurrentzat; ondoren merienda; 22:30ean Zirika Zirkus taldearen *Pantxikaren Lamur* antzez-lana.

Musika

■ **Tolosa.** Tulsa (Madrid) taldea, Bonberenean 22:30ean.

Zinema

■ **Villabona.** Gurean, 19:30ean eta 22:30ean, *Wall Street* filma.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Taloak, gaztainak eta bideo proiektzioa

OREXA Kultur hamabostaldian barruan, atzo iluntzean, suaren bueltan bildu eta Elkartean taloak eta gaztainak jan zituzten. Kultura Batzordeak osagaiak jarri zituen eta haur, gazte eta heldu, taloak egin zituzten. Danbolina gaztainaz bete eta, buelta eta buelta, gaztaina erreak jarri zituzten.

Behin sabela beteta, herriko bideo zaharren proiektzioa eskaini zuten. Proiektzioa, aspaldiko bideo zaharrekin osatu dute. Gaur 16:00etatik aurrera, haurren gozagarri, puzgarriak eta eskalada saioa izango dira. 22:30ean berriz, *Pantxika Lamur* antzerkia eskainiko dute. I. GARCIA

A Agurrak



Zorionak!

Nora (Anoeta).

8 muxu goxo aita, ama eta Txominen partetik.



Iñazio eta Ana!

Astehenean zilarrezko ezteiak ospatuko dituzue. Zorionak familia guztiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

**URREA
EROSTEN
DUT**

Momentuko ordainketa eskura

Aldatu ezazu urrea euroen truke

Edozein eskaintza hobetzen dugu

TASAZORIK ONENA !!

Rondilla kalea 25, behea